



Arartekoaren ebazpena, 2011ko maiatzaren 2koa. Horren bidez, Turtziozko Udalari gomendatzen zaio Palestinako pertsona baten biztanleen erroldan izena emateari dagokionez, eragin data zuzendu dezala.

Aurrekariak

1. Bizkaiko SOS Arrazakeria gobernuz kanpoko elkarteak kexa bat aurkeztu zuen (...)en izenean, Turtziozen erroldan izena emateko dokumentazio osagarria eskatu baitzioten.

Elkarteak helarazitako informazioaren arabera, hasiera batean udalak ahoz erroldan izena ematea ukatu zion honako hau argudiatuz: Palestinako pasaportearen ez zuela onartzen (Osloko akordioarekin bat eginez, 1993/9/13an Washingtonen sinatu zen Palestinako autogobernuari buruzko akordioaren arabera egin zela jasotzen da).

Ondoren, interesduna erroldan izena ematen berriro saiatu zen atzerritarren bizileku-txartela aurkeztuz. Txartel hori indarrean dago 2015-9-5era arte eta bertan Palestinakoa dela jasotzen da, Europar Batasuneko hiritar baten senidea denez, komunitatearen araubidea modalitatean.

Dena den, Turtziozko Udalaren idazki bat jaso zuen eta honako hau adierazi zioten:

"Jakinarazten dizut Tokiko Gobernu Batzarrak, aurtengo azaroaren 8an egindako saioan, honako akordio hau adostu zuela aho batez:

"(...) lekualdatzea; horrek udal honetan aurkeztu duen dokumentazioa Atzerritarren Erregistro Nagusiko dagokion ziurtagiriarekin osatu beharko du".

Hala jakinarazten dizut jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan."

Erreklamazioa jaso ondoren, arartekoak udalari kexaren inguruko informazioa eskatu zion eta kontu horri buruzko lehenengo gogoeta helarazi genion.

2. Arartekoaren informazio eskaera jaso aurretik, alkateak telefono bidez jakinarazi zigun interesdunak egindako erroldan izena emateko eskaera izapidetu zutela eta 2010eko abenduaren 20tik aurrera biztanleen erroldan alta eman ziotela. Ondorioz, ulertu genuen mahaigaineratutako arazoa konponduta zegoela.

Hala eta guztiz ere, gure esku-hartzea amaitutzat jo ondoren, interesdunak bere desadostasunaren berri eman zigun. Izan ere, biztanleen erroldan izena ematea 2010eko abenduaren 20tik aurrera gauzatu zen eta ez izena emateko eskaera egin eta zegokion dokumentazio zuzena aurkeztu zuenetik.





Beraz, berriro ere udalari horri buruzko informazioa eskatu genion, efektu-data izena emateko eskaera egin eta beharrezkoak diren egiaztagiriak aurkeztu zituenen hasi behar zela ulertu baikenuen.

Alkateak planteamendu horri erantzun zion kexa-espeditentea artxibatze eskatuz, azaldu zituen adierazpenenei jarraiki. Laburbilduz, hauexek dira adierazpen horiek:

- Udalaren ustez, penagarria da kexa bat izapidetzea udalak lege eskatu daitekeen dokumentazio osagarria eskatu duelako herritar horrek erroldan izena eman dezan.
 - Aipatutako herritarrak haren eskaeran, erroldan izena emateari dagokionez, ez zuen efektu-datarik aipatu, eta, hala adierazi bazuen ere, hori betetzea ez zen posible izango; izan ere, ez zen izan (sic) zuzenketa bat agiriaren aurkezpenean.
 - Udalak eskaera berariaz gaitzesteko eskubidea zeukan horretarako beharrezkoa zen dokumentazioa ez aurkezteagatik eta erroldan izena emateko legeak eskatzen dituen inguruabarrak ez egiaztatzeagatik.
 - Dena den, Turtziozko Udalak interesdunaren nahia bertan behera utzi beharrian, dokumentazio berria aurkezteko aukera eman zion Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010ko abenduaren 20an, erroldan izena ematearen aldeko akordioa adostu zuen arte.
 - Arartekoak informazio eskaeran aipatzen duen jardura okerra da interesdunak zuzendu behar izan duena, bere eskaerarekin batera ez baitzuen beharrezkoa zen dokumentazioa aurkeztu.
 - Udalari egokia eta zuzenbidearen arabera iruditzen zaio erroldatze data gisa 2010eko abenduaren 20a ezartzea, orduan amaitu baitzen prozedura Tokiko Gobernu Batzarraren akordioaren bitartez.
3. Aurrekari horiek ikusita, interesdunak dagoeneko erroldan izena eman badu ere eta irregulartasuna konponduta dagoela pentsa dezakegun arren, egokitzen jo dugu ebazpen hau egitea, honako gogoeta hauekin bat eginez:

Gogoetak

1. Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 16.2 f) artikulua erroldan izena emateko beharrezkoak diren identifikazio dokumentutzat ondorengo hauek ezartzen ditu (azaroaren 30eko 14/2003 Lege Organikoaren arabera idatzera):

Nortasun agiri nazionalaren zenbakia edo, atzerritarren kasuan, honakoa:

- Espainiako aginpideak egindako eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia.
- Hori eduki ezean, nortasunaren egiaztagiraren edo pasaportearen zenbakia, jatorrizko herrialdeko agintariek emandakoa, hurrengo herrialde hauetako





herritar nazionalak badira: Europar Batasuneko kide diren estatuetaoak, Europar Esparru Ekonomikoari buruzko akordioan parte diren estatuetaoak edo, nazioarteko hitzarmen baten bidez, aipatutako estatuetao herritarrentzat aurreikusitako ordenamendu juridiko bera duten estatuetaoak.

- Indarrean dagoen agirian agertzen den atzerritarren identifikazio-zenbakia, espainiar agintariek emandakoa, edo, hori izan ezean, horien titular ez direlako, indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, jatorrizko herrialdeetako agintariek emandakoa, paragrafo honetako aurreko atalean jasota ez dauden Estatuetao herritar nazionalak badira.

Udalentzako udal erroldaren inguruko jardueri buruzko jarraibide teknikoak xedatzen dituen Estatistikako Institutu Nazionaleko lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko ebazpena (EAO 1997ko uztailaren 25a) argitaratzea xedatzen duen idazkariordearen 1997ko uztailaren 21eko ebazpenaren 5. artikulua, bere aldetik, atzerritarren erroldatzea jorratzen du. Hala, horri dagokionez zera xedatzen du:

“El artículo 18.2 de la Ley de Bases del Régimen Local, en su nueva redacción dada por la Ley 4/1996, refleja en forma clara y definitiva la separación entre las funciones que corresponden a los Ayuntamientos y las que corresponden al Ministerio del Interior en relación con la residencia en España de ciudadanos extranjeros.

El control de la permanencia en España de ciudadanos extranjeros corresponde al Ministerio del Interior, que se sirve para ello del Registro de permisos de residencia regulado por el artículo 13.2 de la Ley Orgánica 7/1985, de 1 de julio, reguladora de los derechos y libertades de los extranjeros en España.

.../...

Una vez más debe reiterarse que la misión del Padrón es constatar el hecho de la residencia, y no controlar los derechos de los residentes. Y justamente porque ésta es la finalidad del Padrón, el artículo 18.2 de la Ley de Régimen Local determina que la inscripción padronal no es un acto administrativo idóneo para que de él se extraigan consecuencias jurídicas ajenas a su función.

.../...

En el Padrón municipal deben estar dadas de alta todas las personas que habitan en el municipio, sean nacionales o extranjeras, y, en este último caso, tengan o no regularizada su situación en el Registro del Ministerio del Interior.

Por lo que respecta al documento identificativo de los extranjeros, que el artículo 16.2.f) de la Ley de Régimen Local define como el documento que sustituya al DNI, puede ser bien el documento oficial expedido por las autoridades españolas (tarjeta de extranjero) o bien el expedido por las





autoridades del país de origen (pasaporte o, en el caso de nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, tarjeta de identidad vigente, de acuerdo con el Real Decreto 766/1992, de 26 de junio). No obstante, los Ayuntamientos procurarán siempre hacer constar en su Padrón, en el caso de extranjeros, el número de la tarjeta de extranjero, y sólo a falta de éste reflejarán el número de su pasaporte, o de su tarjeta de identidad nacional si son ciudadanos de la Unión Europea.”

Laburbilduz, biztanleen erroldan izena eman nahi duen edozein pertsonari identifikatzeko agiria eskatzearen helburu bakarra da haren identitatea ezagutzea. Horrez gain, legean ezartzen ez den agiririk ezin da exijitu, ezta identifikazioaren errealitatearekin loturarik ez duten alderdiak kontrolatu ere.

2. Izapidetutako erroldan izena emateko eskaeran mahaigaineratutako kontu materialak jorratu aurretik, udalaren administrazio jardueraren eduki formalari buruzko alderdiak aztertuko ditugu. Horrela, jarraitutako prozedurari eta izapideei dagokienez, zera adierazi nahi dugu:

a) Herri-administrazioek emango dituzten administrazio egintzak organo eskudunaren bidez egingo dira, ezarritako prozedurarekin bat etorritik (HAAJAPELeko 53.1. artikulua¹).

b) Jakinarazpenek haxe hartu behar dute barne: ebazpenaren testu osoa - administrazio bidea agortzen den edo ez adieraziz-, dagozkion errekurtsioak bai eta zein organori aurkeztu behar zaizkion eta horiek aurkezteko epeak ere (HAAJAPELko 58.2. artikulua ²).

Kasu honetan, erroldan izena emateko eskaerari erantzunez, interesdunak hasiera batean ezezkoa jaso zuen ahoz, udal horrek ez baitzuen onartzen aurkeztu zuen Palestinako pasaportea. Ondoren, identifikazio agiri gisa atzerritarren bizileku-txartela aurkeztu zuenean, interesdunak udaleko idazkariak sinatutako idazkia jaso zuen eta, horren bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren akordioaren berri eman zioten, hau da, dokumentazioa osatzeko zegokion "Atzerritarren Erregistro Nagusiaren egiaztatzea" aurkeztu behar zuela.

Guk egindako informazio eskaerari erantzunez, udalak helarazitako informazioaren arabera, ulertu daiteke erreklamatzailari eskaini zioten izapidea eskaera zuzentzeko eta hobetzeko izapidea izan dela (HAAJAPELeko 71. artikulua) "legeari jarraiki eskatu daitezkeen" agiriak aurkeztu ditzan.

Edonola ere, ez ahoz jakinarazitako lehenengo ezezkoak (Palestinako pasaportea ez zutelako onartzen), ezta ondorengo udalaren akordioak ere, ez zuten azaldu zein arauk xedatzen zuen agiri hori aurkeztu behar zuela, izapidearen izaera, hori egiteko zeukan epea, ezta adostutakoa ez betetzeak izan zitekeen ondorio

¹ Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

² Ídem. (1)



juridikoak ere. Horrek guztiak babesgabetasuna eragiten du, interesdunak ez baititu ezagutzen administrazioak ziurtagiri hori aurkeztu dezan eskatzeko eta, bitartean, eskatutako erroldatzea atzeratzeko dituen arrazoiak, ezta oinarri juridikoa ere.

3. Palestinakoa den pertsona horren erroldatzearen gainean udalak burututako jardueraren eduki materialari dagokionez, interesdunak erroldan alta eman diezaioten eskatzeko aurkeztu zituen agiriak aztertu behar ditugu, lehenengo atalean aipatu ditugun araudiekin eta jarraibideekin bat eginez.

Dagoeneko adierazi dugun moduan, eskatzailearen jatorrizko herrialdeko aginpideek egindako pasaportearen atzeritarren identifikazio pertsonala egiaztatzeke legeak barne hartzen dituen agirietako bat da (TAOLko 16.2.f) artikulua). Kasu honetan, interesdunak zegokion pasaportearen aurkeztu zuen eta ez zituen ezagutu udalak zituen arrazoiak identifikazio agiri hori ez onartzeko. Hortaz, interesdunak, babesik gabe geratzeaz gain, ezin izan zuen une horretan erroldatu, ezta udalaren ezezkoari aurka egin ere.

Justifikaziorik eman ez zioten arren, interesdunak identifikatzeko beste agiri bat aurkeztu zuen: atzeritarren txartela. Agiri hori ere ez zuten onartu, lehenengo atalean adierazi dugun moduan, Europar Batasunekoak ez diren atzeritarrek biztanleen erroldan izena eman nahi badute, identitatea egiaztatzeke lehentasuna duen agirietako bat izan arren.

Zentzu horretan, Tokiko Gobernu Batzarraren esijentziak, hau da, interesdunak dokumentazioa osatzeko Atzeritarren Erregistro Nagusiaren ziurtagiria aurkeztu behar zuela, ez dauka inolako justifikaziorik. Izan ere, agiri hori ez dago erroldan izena emateko eskatu daitezkeen identifikazio agirien artean, ezta aurkeztutako identifikazio ofizialaren osagarri gisa ere.

Zehatz-mehatz, udalaren akordioak hizpide duen Atzeritarren Erregistro Nagusia abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretuak arautzen du. Horren arabera, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen eta euren gizarteratzeari buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren araudia onartu da, aipatu diren jardueren idazpena egiteko; daukan informazioa immigrazioaren arloko eskumenak gauzatzeko balio du. Horrela, 111.2. artikulua zera xedatu du:

“La información contenida en el registro será puesta a disposición de la Secretaría de Estado de Inmigración y Emigración y de los órganos de las Administraciones públicas para el ejercicio de sus competencias en materia de inmigración, así como de los interesados, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en sus normas de desarrollo.”





Estatistikako Institutu Nazionalaren argibidea azaltzen duen moduan, atzerritarrek Espainian daukaten egoera juridikoari buruzko kontrola ez dagokie udalei, kontrol hori gauzatzea bakarrik Barne Ministerioari dagokio.

Guztira, erroldan izena ematea eskatzen duten pertsonen identitatea egiaztatzeke legez baliodunak diren agirien artean, interesdunak bi identifikazio agiri aurkeztu zituen eta biak indarrean zeuden. Beraz, eskatu zioten Atzerritarren Erregistro Nagusiaren ziurtagiria ez zen beharrezkoa, ezta galdagarria ere, identifikazioa osatze aldera. Biztanleen udal erroldan alta emateari dagokionez, udalaren eskumena udalerrian benetako bizitokia duela egiaztatzean bakarrik datza, bai eta modu ofizialean xedatutako agirien aurkezpenaren bitartez, erroldan izena ematea eskatu duen pertsonaren identitatea egiaztatzean ere.

4. Hala, 2010eko abenduaren 20ko Gobernu Batzarrean, biztanleen erroldan alta ematea adostu zen horretan, interesdunak ez zuen hasiera batean eskatu zioten Atzerritarren Erregistro Nagusiko ziurtagiria aurkeztu behar izan. Horren arabera, ondorioztatu daiteke interesdunak hasiera batean aurkeztu zituen agiriak, azkenean, nahikotzat jo zirela eskatutako erroldatzea burutzeko. Hortaz, egiaztatu egin da interesdunak ez zuela aurkeztu zuen dokumentazioa osatu behar izan, udalak azkenean erroldan izena ematea onartu baitzuen, eskatu zioten Atzerritarren Erregistro Nagusiko ziurtagiria aurkezteko beharra alde batera utzita.

Ondorioz, udalak interesdunari biztanleen erroldan alta eman behar zion erroldan izena emateko beharrezkoa zen dokumentazioa aurkeztu zuen hasierako datan eta, eskaera modu formalean jaso ez bazen (osorik ez dauden eskaerak modu formalean ez onartzea ohikoa baita), 2010eko azaroaren 8ko akordiotik aurrera. Horren arabera, dokumentazio osagarria eskatu zioten baina, legeari jarraiki, izapide hori ezin zitzaion kasu honetan exijitu.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

10/2011 GOMENDIOA, maiatzaren 2koa, Turtziozko Udalari egina

1. Biztanleen erroldan interesdunaren alta ematea zuzen dezala, erroldatze data gisa hasierako identifikatzeko dokumentazioa aurkeztu zuen data ezarriz eta, data hori modu formalean jaso ez bada, 2010eko azaroaren 8ko akordioaren data ezar dezala.
2. Pertsona atzerritarren erroldatzeari dagokionez, legearen arabera nahitaezkoak diren identifikazio agiriak soilik exijitu ditzala.

